



Fitxa teknikoa

Zein polita den Panama!

Posta Tigrearentzat

Neuk sendatuko zaitut, tigre

Altxor bat aurkituko dugu

Autorea: Janosch. Pamiela – Kalandrakaren argitalpena, 2010. eta 2015. urteen artean.

Liburuaren aurkezpena

Irakurketa autonomo bidean dauden neska-mutilentzat aukera ederra eskaintzen dute liburu hauek irakurketarekin gozatzeko, inguruko helduekin batera. Irakurketa partekatu eta pertsonaia txiki horien abenturatxo eta izaera bitxiez gozaten den bitartean, hurrek beren burutazioak bideratuko dituzte, pertsonaien ametsak eta errealitateak kontrajarrian azaltzen zaizkien bitartean. Liburu bakoitzean erronka bat planteatzen zaie bi protagonistei eta erronka hari aurre nola egiten dioten erakusten digute, burutapenez burutapen, hausnarketa bitxi eta elkarrizketa xebreak tartekatuz.

Ikuspuntu desberdinak azaltzen dira liburu bakoitzean: fantasia, errealitatea eta logika formala tartekatzen dira, arazo bakoitzari aurre nola egin erabakitzen den bitartean. Kanpoko ikuspegi ezkutu bat ere azaltzen da kontakizun bakoitzean; komentarioak egiten ditu hemen eta hor, oharrak eskaintzen dizkio irakurleari protagonistek ikusten ez dituzten gauzak aipatzen ditu... Burutapen guzti horiek bat egiten dute adin tarte honetan hurrek dituzten kezka eta pentsamendu moldearekin; beraz, haurrak erraz identifikatzen dira tigrea eta hartzaren gorabeherekin.

Bi pertsonaia nagusi daude bilduman, tigre txiki bat eta hartz txiki bat. Ibai-ertze batean bizi dira elkarrekin etxe txiki batean, pertsonaia bakoitzak bere izaera eta betebeharrak ditu eta horiek garatzen dituzte abentura bakoitzean. Beren bizimodua ibai horren inguruan gauzatzen da auzoko beste pertsonaiekin batera. Bigarren



planoko pertsonaia horiek errepikatzen dira liburuz liburu, komunitate baten itxura gauzatzen dutelarik bilduman.

Nola kontatu

Liburu bakoitza irakurri, haurrekin batera, ilustrazioak aurrean dituztela. Irakurketa partekatu; komentarioak bideratu, haurren ikuspuntua eta burutazioak kontutan hartu; helduaren ikuspuntua eskaini...

Proposamenak bideratzen

- Arazo indibidual eta kolektiboak planteatzen dira liburuetan; gizarte handiago batean bere burua kokatu behar duen haur batentzat burutapen egokiak bezain aberatsak.
- Bitartean, helduak neska-mutilarekin zer hausnartu eta zer hitz egin aurkituko du, nobelatxo hauen harian planteatzen diren gorabeherak medio.